

PRIBATASUN POLITIKA

1.1. Tratamenduaren Arduradunaren Identifikazioa

Erakundea, zeinekin kontratatzen ari zaren, BILBAO RIA 2000, S.A da. Egoitza soziala José M^a Olabarri kalean, 4, C solairua, 48001 Bilbao dauka eta A48530356 ZEK du (aurrerantzean "Arduraduna").

Arduradunarekin, br2000@bilbaoria2000.com posta elektronikoaren bidez kontakta dezakezu.

Erreklamazioetarako helbidea, enpresaren egoitza sozialak daukan bera izango da.

1.2. Tratamenduen helburuak

1. Doakionak Arduradunari helerazten dizkion galderi erantzutea.

Gordetze epea: Datuak doakionak planteatutako kontua argitu arte gordeko dira. Ondoren, beharrezkoa izanez gero, informazioa blokeatuta geratuko da legez ezarritako denboran.

Oinarri juridikoa: Doakionaren bidezko interesa eta baimena.

2. Zure parte-hartzea Arduradunaren hautaketa-prozesuetan kudeatzea.

Gordetze epea: Datuak gehienez, bi (2) urtez gordeko dira. Ondoren, beharrezkoa izanez gero, informazioa blokeatuta geratuko da legez ezarritako denboran

Oinarri juridikoa: Arduradunaren bidezko interesa langileak hautatzeko.

1.3. Zure datuen hartzaileak

Arduradunak hirugarrenekin tratamenduaz arduratuko direnak kontratatzen ditu, bere zerbitzuak eman ahal izateko. Konkretuki, Arduradunak akordioak, jarraiko zerbitzu hornitzaile hauekin sinatuta dauzka:

- Microsoft Corporation, Privacy Shield akordioak posta elektronikoaren hornitzaile legez babestua. Informazio gehiago, honako honetan: <https://www.privacyshield.gov/participant?id=a2zt0000000KzNaAAK&status=Active>
- Irontec, S.L. web-ahokaleku hornitzaile legez.

Aipatutako erakundeei salbu, zure datuak ez dira beste inori emango. Arrazoiren batengatik zure datuak beste hirugarren batzuei eman beharko balitzaie, aurretiaz jakiaraziko zaizu eta hala badagokio, zure onespena eskatu eta komunikazioaren

helburuak eta zure datuak jasoko dituen hirugarren horren nortasuna zehaztuko zaizkizu.

Guzti hori, legezko errekerimendu batek aipaturako datuak hirugarren bati komunikatzea agintzen duen kasuetan izan ezik.

1.4. Eskubideak

Beren datuak ematen dizkiguten pertsonak, aipaturako horiei dagozkien eskubide hauek daukate:

- a. Sartzeko eskubidea
- b. Zuzentzeko edo kentzeko eskubidea
- c. Tratamendua mugatzeko eskubidea
- d. Eramangarritasunerako eskubidea
- e. Aurka egiteko eskubidea
- f. Baimena baliogabetzeko eskubidea

Zure eskubideei buruzko informazio gehiago lortu nahi baduzu, Datuak Babesteko Agentzia Espainiarraren web-orria bisitatzea gomendatzen dizugu.

Eskubide hauek br2000@bilbaoria2000.com helbidera emaila bidaliz gauzatu daitezke, argi adieraziz zein eskubide gauzatu nahi duzun eta zure nortasun agiriaren kopia bat gehituz zure nortasuna egiaztatu ahal izateko. Baita ere, Arduradunaren egoitza sozialera postaz jo dezakezue, Pribatasun Politika honen 1go puntuan agertzen den helbidera.

Era berean, Kontrol Agintari eskudunaren aurrean –kasu honetan Datuak Babesteko Agentzia Espainiarra- erreklamazioa aurkezteko aukera daukazula jakinarazten dizugu, bereiziki zure eskubideen erabilera atsegina izan ez bada. Datuak Babesteko Agentzia Espainiarrarekin, 901 100 099 eta 912 663 517 telefono zenbakietara deituz edo bere bulegora joanez (Jorge Juan kalea, 6. 28001 – Madril) kontaktuan jar zaitezke.

1.5. Datuen jatorria

Lortutako datu guztiak doakionarengandik datoz.